

LITERATURA. XX. mendeko euskal idazle ezagun ugari 1950etik 1959ra bitarte kaleratuak dira bildutako lanak

# 'Euzko-Gogoa' osorik sareratu dute Literatur Aldizkariaren Gordailuan


Aldizkariak argitara eman zituen 44 zenbakien faksimilak ikusi nahiz inprimatzeko aukera eskaintzen du web orriak

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

«Gerra galdu zuen euskal idazlearen belaunaldiaren espresioa izan zen aldizkaria» Internet sa- rera heldu da; horrela defini bai- liteke funtsean, Joxean Elosegiren aburuz behintzat, *Euzko-Gogoa*. Argia ikusi zuten aldizkariaren 44 zenbakiak oso- rik jarri ditu on-line Susa argita- letxeak Literatur Aldizkariaren Gordailuan, Gipuzkoako Al- dundiaren enkarguz, lehiaketa publiko batean gailendu eta gero. 114.000 euroko aurrekon- tua izan du lanak.

Aldizkariak testu guztiak ira- kurri eta inprimatzeko aukera ez ezik, azal eta artikuluko guz- tien faksimilak ikusteko eta in- primatzeko aukera ere eskaintzen du web orriak, eta, horretaz gain, testu bakoitzak fitxa bana ere badu, hari buruzko datuak biltzen dituen: orrialde kopu- rua, generoa, egilearen beneta- ko izena ezizenez sinatutako- en kasuan...

Jokin Zaitegi sortu zuen *Euzko-Gogoa* 1949ko aben- duan, Guatemalan erbesteratu- rik zela, eta lehen zenbakia 1950ean plazaratu zen; Zaitegi Euskal Herrira itzuli zenean, 1956an, Miarrizetik eman zuen argitara aldizkaria, eta azken zenbakiak 1959an ikusi zuen ar- gia. 36ko gerraren ondotik oso-



Luis Bandres, Lorea Leanizbarrutia eta Joxean Elozegi, atzoko aurkezpenean.

rik euskaraz argitaratutako le- hen aldizkaria izan zen, eta itzal handiko euskal idazlearen lanak bildu zituen: Orixe, Gabriel Aresti, Andima Ibiñagabeitia, Antonio Maria Labaien, Jon Mirande, Piarres Laffite, Salba- tore Mitxelena, Iratzeder, Ma- nuel Lekuona, Sorne Unzueta, Nemesio Etxaniz, Jon Etxaide, Federico Krutwig, Txomin Pei-

llen, Eusebio Erkiaga, Norbert Tauer, Joxemieli Barandiaran, Manuel Lekuona...

## Idazle ezagun ugari, baina batez ere... Jokin Zaitegi

«Guztien aurretik aipatu beha- rrekoa», hala ere, Jokin Zaitegi bera da, Joxean Elosegiren us- tez. Mikel Elortzarekin batera, Joxean Elozegi izan da *Euzko-*

*Gogoa* sarera isurtzeko lanaren arduradunetako bat, eta lan ho- rrek Zaitegirekiko mirespena sortu dio. «Idazle ona izateaz gain, bere idazle trebetasun hori zernahitara zabaltzeko gai- tasun ikargarria zuen Zaitegi- gik».

Zaitegiren lana ez da behar bezain ezaguna Elosegiren iri- tziz. «Susmoa dut historia bes-

## JOXEAN ELOSEGI

Web orriko testuen transkribatzailea

«Susmoa dut historia bestela erakutsi digutela ondotik. Garrantzikoa da urte haietan zer lan egin zen, eta nola, jakitea»

tela erakutsi digutela ondotik. Badira benetan ilun geratu di- ren gauzak, eta uste dut garran- tzi handikoa dela urte haietan zer lan egin zen, nola egin zen, eta nola ezagutu zen jakitea. Belaunaldi horretako idazleek, mintzatu ahal izateko, kanpora jo behar izan zuten».

«Nahiz eta aldizkariaren bul- tztatzaile nagusiak, Zaitegi bera barne, apezak edo erlijioaren ingurukoak izan, *Euzko-Gogoa* ez zen Elizaren aldizkaria izan», oroitu du Elosegik. «Kristau pentsamoldetik nahiko urrun dauden idazleak agertzen zaiz- guk aldizkarian, Krutwig eta Mirande, adibidez. Horretaz gain, garaiko idazle gazteen la- nei ere lekua eman zien beti».

*Euzko-Gogoa*-ren beste ekar- pen garrantzitsu bat idazle kla- sikoak euskarara ekartzeko egindako saioa da. Idazle grezi- zar eta latinoek idatzitako ez- gain, William Shakespeare, Os- car Wilde, Edgar Allan Poe eta beste hainbat idazle ezagunen lanak euskaraturik irakurtzeko aukera eskaintzen du *Euzko-Gogoa*-ren zenbaki guztiak biltzen dituen web orriak.

«Ondorengo hamarkadan agertuko ez diren kritika gar- biak daude *Euzko-Gogoa*-ren orrialdeetan», Elosegik egia- tzu ahal izan duenez, «frankis- moaren eta batez ere Elizaren kontrakoak, euskara ez bultza- tzeagatik egindako kritikak. Kanpoan egiteak nolabaiteko askatasuna ematen zuten».

Euskal Herri osoko idazle- en idazlanak «naturaltasunez» el- karren ondoan bildurik argitara ematea izan zen, Elosegiren us- tez, *Euzko-Gogoa*-ren beste ekarpen garrantziko bat. «Esa- te baterako, zenbaki berean Mi- rande Orixeren ondoan ager daiteke, edo Laffiteren ondo- an».

## IAITZIA

## Txillardegia ■ IDAZLEA

### 'Euzko-Gogoa' eta gu

**A**rgi bat ilunean izan zen urte hits haietan *Euzko-Gogoa*. Frankismo betean bizi ginen garai hartako gazte abertzaleok (13 urte gerla amaitua zelarik). Baina geroa ere erabat itxia: 10, 20, are 25 ere jasan beharko genuela sumatzen baikenuen.

*Euzko-Gogoa* 1950 inguruan hasi zen gudanaino iristen, isilka, banaka. Baina esperantzaz ere bai.

Hemen, zentsurapean, Antonio Arrue asteasur karlista euskaltzaleari esker, *Egan* genuen. Koldo Mitxelenaren eta An- jeli Irigarairaren lan batzuk irakurri genituen horretara. Besterik ez. Basarrirenak agian, «basarritarrentzako» bere kroniketan.

*Euzko-Gogoa*-k beste kutsu bat zuen. Askatasunean oratua zen, Guatemalan;

eta abertzale ospea zuen Jokin Zaitegi apezak sustatzen zuen; oso bertan Nikolas Ormaetxea Orixe bera ere zeukalarik.

Honek guztiak «irakurgarritasuna» han- ditzen zion gu abertzale euskaltzaleon ar- tean. Pittin bat harritzen gintuen (eta ne- ronek egin nion oharra Miarrizteko bere etxera isilka joan nintzaion batean, Guate- mala-ko hizkuntzei eta etniei buruz zipi- tziek ez aipatzeak); baina gai hori han ikuz- teak kontrako debekua ekarriko zuela esan zidan. Eta horretan utzi nuen.

Garai hartan Bilbon nengoen ikasle: In- dustri Inginiariaren Eskolan, 1950-1956.

Eta, euskara hobeki jakin nahiz, Unibers- tsitate-ikasle taldetxo bat antolatu genuen Gurutz-Antsolak, Alfontso Irigoienek, bes- teren batek, eta neronek.

Krutwigek ez zuen gure talde hartan sartu nahi izan; berak bide bakarra *laphur- tera* klasikoan ikusten baitzuen; eta ez Orixe, Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia eta gainerakoek bidetik.

Astean behin elkartzten ginen, igandean gaizki ez banago. Eta *Euzko-Gogoa*- ren euskara moldea hartu genuen eredu- tzat. Eta aldizkaria bera, eta Orixe-ren *Ki- ton arebarekin* saila aztertu genituen zehatz-mehatz.

Goiz harrigarri haietan (eta Bilbo erdal- dunean!) bizkortu egin ginen. Bai horixe!

Baina urte haietako euskaltzaleon kez- kak eta joerak aztertzeak, baita *Euzko-Gogoa*-ren ekarria aztertzeak ere, Paulo Iz- tuetak 1992an argitara zuen *Orixe eta bere garaia*, V(1.406 orrialde) dugu ezinbestez- ko tresna.

Pauloren ikerlan bikain hori (gaizki ez banago) gutxiegitan hartzen bide da iker- oinarritzat.